**Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

**748/2021 FORU AGINDUA, martxoaren 18koa, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuarena; horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 2ko 11/2021 Foru Dekretuaren bidez araututako "Udalekuak 2021" kanpainan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea luzatu dadila erabakitzen da.**

**ORDEN FORAL 748/2021, de 18 de marzo, de la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte, por la que se acuerda la ampliación del plazo de presentación de solicitudes para participar en la campaña "Udalekuak 2021", regulada mediante el decreto foral 11/2021, de 2 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia.**

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren helburu bat da udan haur eta gazteentzat jolas-aisialdia indartzen duten programak, proiektuak eta jarduerak antola eta gara daitezen sustatzea eta, aldi berean, entretenimendua, bizikidetza eta kooperazioa bultzatzea.

El Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia tiene entre sus objetivos fomentar la organización y desarrollo de programas, proyectos y actividades que potencien el ocio recreativo y favorezcan el entretenimiento, la convivencia y la cooperación, entre la población infantil y juvenil en periodos estivales.

Horretarako, urtero, aisia eta astialdiaren arloan umeentzako hainbat jarduera, antolatzen ditu, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiekin koordinaturik, umeak naturan beste ume batzuekin jolastea sustatzeko eta neska-mutil bizkaitarrei oporraldietan ondo pasatzeko aukera emateko.

Para ello anualmente organiza en coordinación con las Diputaciones Forales de Araba y Gipuzkoa, diversas actividades infantiles, dentro del ámbito del ocio y del tiempo libre, con el propósito de potenciar el ocio recreativo y comunitario en contacto con la naturaleza y de facilitar el disfrute de períodos vacacionales a las niñas y niños de Bizkaia.

Ekimen honi eustea beharrezkotzat jo denez, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 2ko 11/2021 Foru Dekretuaren bidez "Udalekuak 2021" kanpaina arautu da (martxoaren 15eko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 50. zenbakia).

Considerando necesario mantener dicha iniciativa, se ha regulado, mediante el decreto foral 11/2021, de 2 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, la campaña de verano "Udalekuak 2021" (Boletín Oficial de Bizkaia núm. 50, de 15 de marzo).

Edizio honetan, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, "Udalekuak 2021" kanpainan parte hartzeko eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu behar dira (https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera).

En esta edición, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 14.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las solicitudes para participar en la campaña "Udalekuak 2021" deben presentarse a través de la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia https://www.ebizkaia.eus/es/inicio

Gaia arautzen duen Foru Dekretuaren 5.3 oinarrian ezarritakoari jarraikiz, eskabideak aurkezteko epea 2021eko martxoaren 18an hasi eta 2021eko martxoaren 29ko 13:30ean amaituko da.

Hala eta guztiz, Euskara, Kultura eta Kirol Sailari jakinarazi zaio, kanpainaren kudeatzailea denez gero, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren funtzionamenduan aldi baterako geldialdi bat egongo dela martxoaren 27an eta 28an zehar, egoitza horrek era egokian funtziona dezan beharrezkoak diren egokitzapen tekniko batzuk egiteko.

Datu horrek *"de facto"* dakar eskabideak aurkezteko epea murriztea. Ondorioz, epe hori luzatu behar dugu, egoitza erabilgarri ez egoteak kanpainaren kudeaketan sor ditzakeen eraginak arintze aldera.

Horren harira, honako hau ezartzen du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 32.4 artikuluan: *"Gorabehera teknikoren batek eragotzi badu dagokion sistemak edo aplikazioak ohi bezala funtzionatzea, arazoa konpontzen den bitartean, amaitu ez diren epeak luzatzea erabaki ahal izango du Administrazioak. Egoitza elektronikoan argitara eman beharko du, bai gertatutako gorabehera teknikoa, bai bete gabeko epea zehazki zenbat luzatzen den."*

Horrenbestez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko foru-erakundeen hautapen, antolaketa, erregimen eta funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauan eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Egitura Organikoari buruzko

Con arreglo a lo dispuesto en la base 5.3 del decreto foral regulador, el plazo para la presentación de solicitudes ha quedado fijado desde el día 18 de marzo hasta las 13:30 horas del 29 de marzo de 2021.

No obstante lo así establecido, se ha comunicado al Departamento Foral de Euskera Cultura y Deporte, gestor de la campaña, un parón temporal en el funcionamiento de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia durante los días 27 y 28 de este mismo mes de marzo, al objeto de llevar a cabo una serie de ajustes técnicos necesarios para su correcto funcionamiento.

Esta circunstancia implica *"de facto"* una reducción del plazo de presentación de solicitudes, lo que nos obliga a acordar una ampliación de este, a fin de mitigar el impacto de esa falta de operatividad en la gestión de la campaña.

En este sentido, artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas establece que: *"Cuando una incidencia técnica haya imposibilitado el funcionamiento ordinario del sistema o aplicación que corresponda, y hasta que se solucione el problema, la Administración podrá determinar una ampliación de los plazos no vencidos, debiendo publicar en la sede electrónica tanto la incidencia técnica acontecida como la ampliación concreta del plazo no vencido".*

Por ello, en base a lo dispuesto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y a tenor de las facultades conferidas en la Norma Foral 3/87 de 13 de febrero sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como en el decreto foral de la Diputación Foral

Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuan nahiz bat datozen gainerako xedapenetan emandako eskumenen arabera, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Eskabideak aurkezteko epea 2021eko martxoaren 30eko 13:30era arte luzatzea.

Bigarrena.- Iraungi ez den epe horren luzapena eta hura eragin duen gertaera Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratzea.

Hirugarrena.- Foru-agindu hau jakinaraztea Kultur Ekintzako Zerbitzuari, «Udalekuak 2021» programaren kudeatzaileari.

Bilbon, 2021eko martxoaren 18an

de Bizkaia 131/2020, de 29 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento foral de Euskera, Cultura y Deporte, y demás disposiciones concordantes,

DISPONGO

Primero.- Ampliar el plazo de presentación de solicitudes hasta las 13:30 horas del 30 de marzo de 2021.

Segundo.-Publicar la incidencia y la ampliación del plazo no vencido en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

Tercero.- Comunicar la presente orden foral al Servicio de Acción Cultural, gestor del programa "Udalekuak 2021".

En Bilbao, a 18 de marzo de 2021

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatua

La diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte

Lorea Bilbao Ibarra